

LEKUAN LEKUKO anboto

DEKORAZIO GEHIGARRIA

Azken dekorazio joerak

Gehigarri honetan, etxeko dekorazioa berrizteko jakin beharrekoak eta Durangaldeko profesionalak ezagutuko dituzu. / 13-24



JAIETAKO ABESTIA

'Agur agur, ilargiranoa' abestia berreskuratu eta grabatu dute Abadiñon

Hainbat musikarik doinu herrikoia berreskuratu dute. San Trokaz jaietako azken egunean, Gerbas aireratzan dutenean, abestia dute helburu. / 4



LITERATURA

'Hitzez eta Ahotsez' 130 parte hartzailegaz bueltatuko da, maiatzaren 29an / 8

MENDI LASTERKETA

7 Pago mendi lasterketagaz hasiko dute Durangaldeko Kopa, zapatuan

Durangaldeko Kopa bueltan da eta bihar emango diote hasiera, 7 Pago lasterketagaz. ANBOTO Kopako babeslea da eta jarraipen zabala egingo du. / 5

Mari Luz Gorostiza eta Josu Arkarazo, Mañariko plazan.



"Andra Mari dantza taldearen ospakizuna egun ederra izango da"

Mañariko dantza taldeak 40. urteurrena ospatuko du zapatuan. Ekitaldian Mari Luz Gorostiza eta Josu Arkarazo omenduko dituzte, besteak beste. / 2-3

EUSKADIKO

Tokiko Merkataritzaren
FIDELIZAZIO sarea

berrir



BERRIRO EZAGUTU: www.berriro.eus





Mari Luz Gorostiza eta Josu Arkarazo, Mañariko plazan.

"Mañariko frontoia dantzariz beteko dela jakiteak ilusio handia egiten digu"

MARI LUZ GOROSTIZA ETA JOSU ARKARAZO ANDRA MARI DANTZA TALDEA

Mañariko Andra Mari Dantza Taldeak 40. urteurrena ospatuko du bihar. Mari Luz Gorostiza eta Josu Arkarazo jaiari omenduko dituztenetarik bi dira

Joseba Derteano MAÑARIA

Andra Mari Dantza Taldeak 40. urteurrena ospatuko du zapatuan. Eguerdian kalejiran irtengo dira, Jaizale taldeak lagunduta. Ondoren, dantza saioa egingo dute frontoian. 75 bat dantzari batu-ko dira, gaurkoak eta atzokoak.

Gero bazkari herrikoian batu-ko dira, eta 18:00etan Lorratz taldearen erromeria hasiko da.

Taldea 1986an sortu zen eta jende askoren lanari eskerrak heldu da gaur egunera. Ospakizunean, taldeko hiru lagun omenduko dituzte. Hasieratik

dantzak erakusten ibili ziren Mari Luz Gorostiza Arroitaonaindia (Berriz, Mañarian bizi da, 1954) eta Begoña Gorritxategi, eta gaur egun dantza taldeagaz jarraitzen duen Josu Arkarazo Azkargorta txistularia (Abadiño, 1955). Gorostizak eta



Joan zen domekan entsegu orokorra egin zuten dantzari guztiekin.

Arkarazok erantzun diete galderari.

Zelan sortu zen Andra Mari dantza taldea?

Mari Luz Gorostiza: Sasoi hartan ez zebilen emakumerik dantzan; gizonak bai, ezpatadantzariak betidanik egon dira, baina emakumerik ez zebilen eta elkarterik ere ez zegoen. Akordatzen naiz Mañariko San Martin ermitako ospakizunean geundela eta Maria Angeles Angoitiak proposatu zidala: "Sortuko dugu talde bat?". Ni orduan Berrizko San Lorentzo dantza taldean nengibilen. Baietz esan nion, baina laguntasuna beharko nuela. Begoña Gorritxategi prest zegoela jakin nuen eta horrela hasi ginen elkarte sortzen. Ahorik aho zabaldu zen asmoa, kartelak ere egin genituen.

Josu Arkarazo: Durangaldeko beste herri batzuetan bazeuden dantza taldeak. Izurtzan ere bazebiltzan. Maria Angelesek beste herrietako egoera ezagutzen zuten, eta, Mañarian hutsune bat ikusten zuenez, esango nuke hortik sortu zela ideia.

Gogoan duzu lehenengo entsegu eguna zelakoa izan zen?

M.L.G.: 40 neska-mutiko etorri ziren. Herri guztia! Poza hartu genuen. Zapatu arratsaldeetan batzen hasi ginen. Abadetxe lokal batean entseatzen genuen, eliza ondoan. Irakasleak Mañarikoak eta inguruko herrietakoak ziren: Begoña eta ni neuz, Alfredo Otxandiotik, eta Ricardo Berriztik. Nik txikienei erakusten nien, Begok neskei, Alfredok mutilei, eta horrela. Hainbat dantza irakatsi genuen. Hurrengo urtean, jaietan lehenengo Andra Mari egunean, lau-bost talde ateratu genituen. Ordu eta erdiko dantza ekitaldiak egiten ziren orduan, 22:00etan hasita. Frontoia bete egiten zen. Ikusmina eragiten zuten, herriko umeak dantzan ikustea nobedadea zelako.

Toki askotan ibiltzen zineten?

M.L.G.: Herriko ermitan jaietan ibiltzen ginen: San Martin, San Lorentzo... eta herririk herri ere bai, Euskal Jaietan esaterako.

Noiz arte jarraitu zenuen Andra Marin?

M.L.G.: 10-15 urtean ibili nintzen. Gero, erreleboa emateko momentua zela iruditu zitzaidan. **Zuk sortzen lagundu zenuen dantza taldea gaur egun bizi-bizirik dagoela ikusteak zer sentiarazten dizu?**

M.L.G.: Poz handia. Neska-mutilek domeka goizean egiten dituzte entseguak, plazan, eta etortzen naizenean eta hainbeste ikusten ditudanean... Politada. Umeen talde bat sortu dute eta hori albiste ona da. Nire iloba ere bertan dabil.

Zelan ikusten duzue gaur egungo dantza mundua?

M.L.G.: Neska-mutillak dabilta dantzan, baina ezpatadantza baino ez dute egiten. Orain arte neskek egindako dantzen falta igartzen dut: arku-dantza, gorulari... Dantzari dantzakoak ez diren dantzak egiten ere ikusi gura nitzuke neska-mutillak.

Josu, zuk Alejandro Aldekoaren lekukoa hartuta hasi zinen Andra Mari taldeagaz.

J.A.: Alejandro urteetan ibili zen. Berrizko talde batez ere bazezilen, eta Euskal Jaietan hango eta hemengo umeekin... Eta, jakina, ezin denera heldu. Orduan, Mañariko taldeagaz hasi nintzen. Alejandrok jarraitu zuen ermitetara joaten eta abar. Ni entseguetara etortzen nintzen. Jaietan elkarregaz jotzen genuen, harik eta Alejandro jubilatzen arte. Orduan nik ardura gehiago hartu nuen.

Abadiñarra zara, baina lotura berezia duzu Mañarigaz.

J.A.: Andrea Mañariko neukan eta lagunak nituen bertan. Mañarriarekin beti izan dut hartu-eman estua, Andra Mari taldea sortu aurretik ere bai; 1974an edo 1975ean Dantzari Eguna ospatu zen, eta taldea handik eta hemendik osatu, eta hor ibili ginen.

Zer itxaroten duzue urteurreneko ospakizunetik? Ekimeneko protagonista bi izango zarete.

M.L.G.: Apur bat urduri nago. Pozik ere bai, gutaz akordatu direlako. Eta Mañariko frontoia dantzariak beteko dela jakiteak ilusio handia egiten dit. Horrek asko balio du.

J.A.: Ni ere urduri egongo naiz. Oso esker oneko nago herriagaz. Eta Mari Luzek dioen moduan, frontoia dantzariz beterik ikustea beti da polita. Adin askotakoak, gainera.

M.L.G.: Nire alaba Naiara ere han ibiliko da, Mutrikutik etorrita, han bizi da eta. Sei urteagaz hasi zen dantzan, eta txistulari ere ibili zen.

J.A.: Kanpotik beste batzuk ere etorriko direlakoan nago, kanpora ezkoduntakoak eta. Aspal-di ikusi bako lagunak ikusiko ditut. Egun ederra izango da.

Dantzarako adinik ez dagoela erakusten duen emakumeen taldea berriro batu da

Mañariko hainbat emakume euskal dantzak ikasteko elkartu zen 2007an. Ordura arte sekula dantza ibili bakoak ziren. "Hutsetik hasi ginen, baina ilusio handia geneukan", gogoratu du talde hartako kide Lurdes Areitiok. Hamarkada batez ermitetako jaietan, herriko jaietan, Santa Ursula egunean... ibili ziren dantzan, Mañarian jai giroa zabalduz. Orain berriro elkartu dira, Andra Mari dantza taldearen 40. urterreneko ospakizunari begira. Martitzenetan egin dituzte entseguak, hutsik egin barik.

Areitiok azaldu duenez, taldea ustekabean sortu zen. "Dantza taldeko Igone Ikobaltzetak gazte batzuk taldera batzea gura zuen, baina ez ziren animatzen. 'Zelan ezetz!', esan nuen, 'guk egin ahal izanez gero...'. Eta Igonek esan zigun: 'Ba, hasi zuek



Entsegu egun bat udaletxeko lokalean.

ere". Horrela abiatu zen taldea. Hasieran Ikobaltzeta izan zuten irakasle, eta gero Maria Bizkarragaz jarraitu zuten. Eurei eskerrak, jairik jai egin zituzten hainbat dantza ikasi zituzten.

Taldeko nagusiena Kontxi Agirre da, 80 urte gaz, eta Areitiok 75 ditu. Martitzeneko batu izan dira entseguetan,

eta dantza bi prestatzen aritu dira: gorulari dantza eta sagar dantza, "geurera moldatuta", Areitiok azaldu duenez. Horiek dantzatuko dituzte ospakizunean. Entseguak giro onean egiten dituztela nabarmendu du: "Oso ondo pasatzen dugu". Ospakizunari begira, "ilusioz" daude guztiak eta onena emateko prest.



Eguaztenero batu dira entseiatzen.

Gustuko lekuan aldatsik ez gizonetzko dantzari beteroentzat

Biharko ospakizunak berriro batu ditu Andra Marigaz ibilitako hainbat gizon beterano. Eguaztenero egin dute entsegua, Augusto Alvesen aginduetara.

Josu Urizar da taldeko beteroenoa. Mañariarrak 59 urte ditu, gaur egun Otxandion bizi da eta umetan hasi zen dantzan. "8-10 urte gaz hasi nintzen, 17 gaz utzi nuen, gero barrero bueltatu... Labur esanda, sekula ez dut guztiz utzi", azaldu du. Gogoratu duenez, orain hamar bat urte berriro elkartu ziren, gehiagotan dantza egiteko asmoz.

Urteak ez dira alferrik joaten, eta, umorez aitortu duenez, "hankak behar den moduan altxatzeko, aurretik beroketa ariketak" egin behar dituzte. Hori bai, "ilusio aldetik" inork ez ei ditu gainditzen.

Okm batzen gaituen distantzia

ANBOTOKIDE MAIATZEKO ZOZKETAK



Xiberu tabernan
(Zornotza) bi gosari bikoltz.



Areatza bainuetxea.
Gau bat logela bikoitza, gosaria + zirkuitu termala 2 lagunentzat.



BASA take away
jatetxeko KMO haragidun eta ogi artisaudun hanburgesa eta bi saltsadun patata errazioa opari. Bariku eta zapatu gauetan gozatzeko.



Uxarte Sagardotegian
birentzako otordua.



Aukan izozkiak.
6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.

EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE
EIA PARTE HARTU
GURE ZOZKETETAN!



"Agur agur ilargira noa" abestiaren grabazioa herritik eta herriarentzat sorturikoa da"

Gerbasen aireratze egunean kantatuko duten abestia grabatu dute Abadiñoko hainbat musikaririk

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO
1979tik hona, San Trokaz jaiei amaiera modu kurioso batean ematea da ohitura Abadiñon. Abadiñoko jai nagusietako Gerbas panpina aireratu egiten dute, santrokazetako pertsonaia maitatuari amets egiteko aukera ematen diote, hegaz irtekoa. Julian Agirre Zubizarretaren omenez sorturiko pertsonaia da Gerbas, abadiñarren bizitzan iltzatuta geratu dena, eta, aireratze hori borobiltzeko, *Agur agur ilargira noa* doinu herrikoa berreskuratuz, grabatu eta jaien amaierako ekitaldian abestuko dute. **Gerbas aireratzeko den unerako abesti bat sortu duzue. Zelan sortu da ideia hau?**

Endika Zarrabeitia: Sortu baino gehiago, moldatu egin dugu. Jose Luis Zarrabeitia 'Urtain' osaba hil zenean bideo bat heldu zitzaigun etxera. Bertan, osaba kanta herrikoia hau abesten ageri zen, herriko

ume batzuekin; "Agur agur ilargira noa". Miriami erakutsi nion eta abestia txistuagaz jotzeko ideia proposatu zidan. Osabaren omenaldi egunean jo zuten abestia. Eta orduantxe bururatu zitzaigun: zergaitik ez abesti hau Gerbasegaz lotu? Guk Gerbas zerura botatzen dugu, ilargira. Horretan hasi ginen orain urte bi.

Miriam Uria: Gerbas aireratzeko unean, txistulariok oholtzara igo eta abesti hau jotzen hasi ginen, baina inortxo ere ez zen konturatu zein abesti zen, zergaitik jo genuen pieza hura, eta zeozer egin behar genuela bururatu zitzaigun.

E.Z.: Bai, eta argi geneukan jende gazteak parte hartu behar zuela honetan, gazteak izan behar zirela protagonista.

M.U.: Herriko gazte mordo dago musika ikasten, baina ez dute aukera izaten jaietan jotzeko. Eta asko ezagutu ere ez genituen egiten. Zein musi-



Ekzerretik hasita, Endika Zarrabeitia, Terese Sagarna, June Rementería eta Miriam Uria.

ka-tresna jotzen zuten kontuan hartu, eta Aritz Labradorri partituren moldaketak egiteko eskatu genion. Behin partiturak eskuetan, handik eta hemendik musikari gazte mordo bat guregen grabaziorako.

E.Z.: Herri osoko musikari gazteak batzen ahalegindu gara, auzo guztietakoak. *Agur agur ilargira noa* abestiaren grabazioa herritik eta herriarentzat sorturikoa da.

"Etorkizunean gazteak oholtzaren egon behar dira, protagonista bilakatu behar ditugu Gerbasegaz batera"

Eta, azkenean, proiektuak argia ikusi du. Zelakoak izan dira prozesua bera eta grabazioaren emaitza?

M.U.: Hasiara zoramena izan zen, baina gero nahiko erraz joan da dena. Jende askok parte hartu du eta oso polita izan da.

E.Z.: Hau guzti hau borobiltzeko, gauza bakarra faltako litzateke, abestiaren grabazioan parte hartu duen talde zoragarri honek egunean bertan zuzenean jo ahal izatea. Denak elkartu eta batera jotzea Gerbas aireratzeko dugun bitartean.

M.U.: Aurten hori egitea ezinezkoa izango da, zuzendari bat beharko genukeelako, denbora entseatzeko... Baina etorkizunerako hori oso polita izango litzateke.

E.Z.: Domekan musika aparatatu batetik entzungo dugu abestia,

baina argi dugu gerora begira gazte musikariek oholtzaren joko dutela, eta protagonista bihurtuko direla Gerbasegaz batera. **Terese eta June, zuentzat zelako esperientzia izan da estudio batean abesti bat grabatzea? Ondo pasatu duzue?**

Terese Sagarna: Oso esperientzia polita izan da, oso ondo ibili ginen.

June Rementería: Politak eta dibertigarriak, grabazioan oso ondo pasatu genuen.

Beste ezer gaineratu gura zenukete?

E.Z.: Ohore handia izan dela grabazio hau egitea, eta partaide guztiei eskerrak eman gura dizkiegu izan duten prestasunagatik. Baita Jaizale txistulari taldeari proiektua egiteko emandako laguntzarengatik.

Euskal azoka eta azpigorrien txapelketa etzi Mañarian

J.D. MAÑARIA

Mañariko Maiatza Kulturala amaitzeko, domekan XXX. Euskal Azoka egingo dute herriko plazan. 10:00etatik 14:00etara askotariko postuak egongo dira, eta antxume pintxoak ere dastatu ahal izango dira 2 eurotan. Azokaren harira, beste hainbat ekimen izango dira. 11:00etan umeentzat tailerrak egingo dituzte frontoian, taloak eta kandelak egiten ikasteko. Eguerdian, 12:00etan, Euskadiko Azpigorri Txapelketa hasiko da aparkalekuan.



ANBOTO

Atxarteko harrobien etorkizuna abadiñarrekin erabakitze saioa

M.Z. ABADIÑO

Atxarteko harrobiak berreskuratze eta haien balioa azpimarratzeko prozesua azken fasean sartzen da, eta, horretarako, datorren egunerako, maiatzak 28, tailer parte hartzaile bat antolatu dute. Abadiñoko Probalekuan izango da. Udalak jakinarazi du ekitaldi hau funtsezkoa izango dela abadiñarren eta inguruko herritarren ikuspegia eta ekarpenak jasotzeko, eta baita etorkizunerako Atxarte zelakoa izango den zehazteko ere.

Tailerak hiru helburu nagusi izango ditu. Lehenengoa Atxarteko harrobien berreskurapenerako landu diren alternatibak

aurkeztea. Bigarrena herritarren iritzia jasotzea eta proposamenek duten babes maila aztertzea. Eta hirugarrena proposamenek sortu ditzaketan kezka edo erresistentziak identifikatzea, konponbide adostuak erabakitzeke.

"Maiatzaren 28koa aukera paregabea da Atxarteren etorkizuna modu paregabean irudikatzeke. Proiektu hau denon artean eraiki gura dugu eta herritar guztiei dei egiten diegu ekitaldira etortzeko", azaldu dute udal ordezkariak.

Saioan parte hartzeko izena eman behar dela jakinarazi dute. Horretarako, udalaren webgunean ipini duten inprimaki laburra bete behar da.

Mendi lasterketen festa, Durangaldeko Kopa, 7 Pago lasterketaz hastear da, Mallabian

Proba luzea 09:30ean hasiko da, eta laburra 10:00etan. Guztira, 425 parte hartzaile daude

Maialen Zuazubiskar MALLABIA

Iazko estreinaldi arrakastatsuen ondoren, Durangaldeko zortzi mendi lasterketa batzen dituen Durangaldeko Kopa bueltan da. Eta, zelan ez, aurtengoan ere 7 Pago mendi lasterketaz emango diote hasiera mendi lasterketen festari. Guztira, 425 korrikalarik parte hartuko dute lasterketa bitan banatuta, luzean eta laburrean. 09:30ean 25 kilometroko lasterketa luzeko korrikalariak irtengo dira, eta 10:00etan 16 kilometroko lasterketa laburreko parte hartzaileak.

Ibilbide luzeko parte hartzaileek 1.400 metroko desnibela duen ibilbideari aurre egin beharko diote. Herrigunetik irten, Zengotitagainera igo, eta gero Oiz mendia igo beharko dute. Bestalde, lasterketa laburrekoek 750 metroko desnibela izango dute aurretik.



7 Pago mendi lasterketako iazko argazki bat.

Hauen punturik altuena Zengotitagane izango da.

Parte hartzaileei dagokienez, maila handiko korrikalariak izango dira Mallabiko irteera lerroan. Bertan izango dira Irazu Aranburu, Lola Oiarzabal,

Urko Herran, Oihane Unzalu, Ander Jauregi, Gorka Arrizabalaga eta Zutoia Odriozola, besteak beste.

Aurtengo Durangaldeko Kopa berrikuntza nagusi batez dator. Izan ere, Kopak bigarren

txapelketa bat izango du; lasterketa luzeekin osaturiko Mari Kopari distantzia laburragoko probak batzen dituen Durangaldeko Sugaar Kopa gehituko zaio.

ANBOTO babesle

Aurreko edizioan legez, ANBOTO Kopako babesle izango da aurten ere, eta zortzi proben jarraipena egingo du. Hori horrela, zapatuko 7 Pago lasterketa amaitu eta gero lasterketako kronika eta korrikalarien helmugako argazkiak www.anboto.org atarian egongo dira ikusgai.

Egun osoko egitaraua

Mendi lasterketaz gainera, 7 Pagoko antolatzaileek egun osoko egitaraua antolatu dute zapatarako. 10:30ean puzgarriak egongo dira haurrentzat, 13:30ean Elektrotxufla elektrotxaranga, 14:00etan oilasko pintxoak dastatzeko aukera, eta 16:00etan umeen lasterketa. 17:30ean garagardo dastatzea egongo da frontoian, eta Imanol Epelderren *Zerbait sartu zait begian* ikuskizunagaz emango diote amaiera egunari.

Karobiko pista garbitzeko auzolana, zapatuan, Zaldibarren



Pistaren egoera. ZALDIBARKO UDALA

E.H. ZALDIBAR

Karobiko pistako inguruetan (Goierri auzoa) obra-hondakinak eta zaborra daudela eta, Zaldibarko Udalak auzolana antolatu du eremua garbitzeko. Garbiketa-jardunaldia zapatu honetan egingo dute, maiatzak 23. Boluntarioak 09:00etan geratu dira, Goierriko zentral elektrikoaren ondoan, handik pistara joateko. Udalak aseguruia egingo die parte hartzaileei. Horretarako, interesdunek zaldibar@zaldibar.eus helbidean eman behar dute izena. Parte hartzaileek arropa egokia eraman beharko dute.

'Geurie erabili zeinke' kanpaina

M.Z. BERRIZ

Berrizen, *Altxau Burue Berriz* taldeak *Geurie erabili zeinke* ekimena martxan ipini du. Hori horrela, ekimenean parte hartzen duten saltoki, ostalaritza zerbitzu zein herriko gainerako zerbitzuek telefono bat ipiniko dute eskuragarri herriko haur zein nerabeentzat. Haurtzaroen telefono mugikorra erabiltzeko beharra murriztea da helburua.



Dinamikako bultzatzaileak Berrizko alkateagaz batera. BERRIZKO UDALA

Barikuan eta zapatuan pilota partiduak egongo dira Atxondon

M.Z. ATXONDO

Azken asteburuetan legez, oraingoan ere Atxondoko Pilota Goxua Txapelketako partiduak egongo dira Apatan. Oraingoan, baina, nobedade batez datoz. Barikuko txapelketaren aurretik, 18:00etan, herri arteko txapelketa jokatu da. Herri arteko txapelketa bi egongo dira: alde batetik, Porrontxok

eta Arkaitzek Larrabetzuko bikotearen aurka jokatu dute. Eta, bestetik, Anek eta Naroak jokatu dute. Horiek ere Larrabetzuko bikote baten aurka.

Partidu horien ondoren, Pilota Goxua Txapelketako partidu bi egongo dira. Batetik, Gerrickak eta Kanok Peioren eta Unaxen aurka jokatu dute, eta, bestetik, Pellok eta Aitorrek Julenen eta Arkaitzen kontra.

Domekan, 17:00etan hasita, beste hiru partidu egongo dira iragarri dute.

BERRIZKO KULTUR EKITALDIAK

MAIATZA

24 IGANDEA
Zinema: *Todo lo que fuimos*
19:00 Kultur Etxea

24 IGANDEA
VII. San Fermin Torneoa
17:30 Olakueita Frontoia

31 IGANDEA
Zinema: *Yo no moriré de amor*
19:00 Kultur Etxea

GOIURIA AUZOAN AUZORIK AUZO 2026

Maiatzak 23 · 18:00

Uxue Aróniz & Iñaki Miguel

Eta Jarralan auzokideekin luntx xume bat

Iurreta Eleizateko Udala

Bizkaia Iraultzaile Espirituak

GOIURIA GOIURIAK

"Gaztetxeen eta gazte asanbladen loraldian gaude. Topaketak horren erakusle dira"

AITOR LARRUZEA, IGOR MARTINEZ, XIBERU SANCHEZ ETA UXUE GORROTXATEGI
GAZTETXE ETA GAZTE ASANBLADETAKO KIDEAK

Joseba Derteano ELORRIO
Elorriok Euskal Herriko Gaztetxe eta Gazte Asanbladen Topaketak hartuko ditu maiatzaren 29an eta 30ean. Egun osoko egitaraua izango dute, eta hausnarketarako eta jairako tartea. Bonuak eskuragarri daude, maiatzaren 23ra arte. Gaztetxeetan edo *gaztetxeasanblada_topaketak* Instagram kontuaren bitartez eskuratu daitezke. Topaketen inguruko xehetasunak eman dituzte Elorrioko gaztetxe Aitor Larruzea Arbuluk, Atxondoko gaztetxe Igor Martinez Yebenesek, Durangoko gaztetxe Xiberu Sanchez Barandallak eta Abadiñoako gaztetxe Uxue Gorrotxategi Agirrek.

Zenbat gaztetxe eta gazte asanbladetako kide batuko zarete?

Uxue Gorrotxategi: Topaketek oso harrera ona izan dute. Guztira, 100 gaztetxe eta gazte asanblada baino gehiago gaude hartu-emanetan, Euskal Herriko txoko guztietakoak. Topaketak antolatzekeo batzarrak oso jendetsuak izaten ari dira. Oso esperientzia aberasgarria izaten ari da.

Zergaitik dira beharrezkoak horrelako topaketak?

Xiberu Sanchez: Gaztetxe eta gazte asanbladetako mugimenduen parte garenon artean komunitate indartsu bat sortzea eta esperientziak partekatzea inportantea da, eta, alde batetik, horretarako dira topaketak. Gainera, gazteok testuinguru zail bat bizi dugula ikusten dugu. Faxismoa indarra hartzen dabil, eta horregaz batera baita matxismoa eta arrazakeria ere, besteak beste. Horren aurrean gaztetxeek paper inportantea betetzen dutela uste dugu, kontzientzia lan bat egiten dabiltzela, gure artean kezkak azalera eta eztabaidatzen, borrokarako tresnak eskaintzen, eta orokorrean mundu ikuskera berri bat eskaintzen. Uste dugu topaketa hauek inportanteak izan daitezkeela gaztetxeen aldeko borrokak bultzatzeko.

Aitor Larruzea: Eztabaidaren kultura bultzatu, bizi garen testuinguruari buruz berba egin eta Gaztetxe eta gazte asanbladen erronken inguruan sakondu gura dugu. Topaketan parte hartzen dugunok erreferentzia

politiko desberdinak ditugu eta kritikotasuna sustatu gura dugu. **Topaketak zer eskaini dezake komunitatea indartzeari eta saretzeari dagokionez?**

Igor Martinez: Gaztetxeen aurkako erasoaldian gauden honetan, aurrerapausoak eman behar izan ditugu gaztetxeen arteko hartu-emanak eraiki eta sendotzeko. Bide horretan, topaketak aurrerapauso garrantzitsu bat izaten ari dira. Gaztetxe eta gazte asanbladen arteko hartu-emanak naturalizatu eta borroka esperientziak eta jarduteko moduak partekatzekeo espazioak eraiki ditugu.

Zein da gaztetxeen eta gazte asanbladen gaur egungo egoera?

U.G.: Gaztetxe eta gazte asanbladen loraldi bat bizi dugu. Topaketak horren erakusle izaten ari dira, ehunka gazte konpromisoz eta gogoz erantzun dutelako. Bileretan aktibitatea eta borrokarako borondate handia dago. Horren adibide dira azkenaldian zabaldu diren gaztetxe berriak edo gazteak gaztetxeetatik derri gorrez ateratzearen aurrean egon diren elkartasun eta defentsa adierazgarri eta eredugarriak.



Aitor Larruzea, Igor Martinez, Xiberu Sanchez eta Uxue Gorrotxategi.

EGITARAUA

MAIATZAK 29

- 16:00 Harrera.
- 18:00 Tailerrak.
- 19:30 Azoka gaztetxeroa.
- 22:30 Zirkua / Gaztetxeak bertsotan / Kontzertuak: Maga Rude eta Meison.

MAIATZAK 30

- 11:00 Hausnarketa kolektiboa.

- 13:30 Pintxada: Delko.
- 15:00 Bazkaria. Ondoren, La Ruina.
- 17:00 Kantaldia: Arantxa.
- 19:00 Gaztetxeen aldeko manifestazioa.
- 20:00 Kontzertuak: Skabidean, Mateo Zikuta & El Garto, Maixa Ta Malakias, Dena, Eztanda, Lee Kore eta Aurrez Aurre. Ondoren, DJak.

Mikel Arruabarrena izango da EAJko alkategaia Elorrioren

J.D. ELORRIO
Elorrioko EAJ-PNVren Uri Bazarrak aho batez aukeratu du Mikel Arruabarrena Azpitarte Elorrioko alkategai hurrengo udal hauteskundeetarako. EAJK halaxe jakinarazi du ohar batean. Arruabarrenak laugarren udal hauteskundeak izango ditu, hiru legegintzalditan zinegotzi izan eta gero.



Mikel Arruabarrena.

Seigarren Asier Eguna ospatuko dute Iurretan, maiatzaren 30ean

A.B. IURRETA

"Ezkontza batetik beste ezkontza bat irteten dela esaten dute, eta parranda batetik beste parranda bat. Ba, horrela sortu zen dena". Halaxe azaldu zion Asier Otadui ANBOTOrri lehenengo Asier Eguna antolatu zutenean. Orduetik sei urte joan dira, eta oraindino eusten diote ohiturari.

Aurten, maiatzaren 30ean ospatuko dute Asier Eguna. Ipar Euskal Herriko ikastolak batzen dituen Seaskako egutegiak euskal izen bat edo bi jasotzen ditu egunero-egunero. Bada, maiatzaren 24ak Asier izena jasotzen du. Hori aintzat hartuta, hurrengo asteburuan ipintzen dute hitzordua Asier Egunerako.

Bazkaltzeko eta ondo pasatzeko asmoagaz elkartzen dira, Asier Verak azaldu duenez. Lehenengo Asier Egunean 11 lagun elkartu ziren, eta oraingoz 17 batuko dira aurten, eskualdeko hainbat herritakoak. "Inoiz baino gehiago elkartuko gara. Pozik gaude ekimenak urtero duen harreragaz", esan du Verak.

Asierrika

Aurten sopesatxo bat ere prestatu dute, Verak iragarri duenez: Asierrika egingo dute. "Urtero ekintza bereziren bat antolatzen dugu. Egunagaz lotuta, iaz abesti batzuk kantatu genituen, barre batzuk egin eta ondo pasatzeko helburuagaz. Aurten



Iazko Asier Eguneko irudi bat.

korrika egingo dugu". Oraindino badago aukera ekimenera batzeko. "Gutarikoren batez hartu-emanetan ipintzea baino ez da behar. Besoak zabalik hartuko ditugu Asier guztiak", gaineratu du.

Kultur Aniztasun Jaia ospatuko dute Otxandion zapatuan

A.B. OTXANDIO

Kultur Aniztasunaz hausnartu eta gozatzeko aukera egongo da Otxandion zapatuan. Herriko 11 Lore elkarteak antolatuta, Kultur Aniztasun Jaia ospatuko dute. 11 Lore elkartearen eta Mugimendu Sozialistaren eskutik, arrazakeriak hartzen dituen formak eta horri zelan aurre egin hausnartuko dute Pasealekuan, 12:00etan. Aldi berean, ume eta gazteentzat munduko jolasak egingo dituzte plazan. Ezkontza saharar baten antzezpina egingo dute 13:00etan, eta gero, hainbat jatorritako otxandiarrek egindako pintxoaren dastatzea egingo dute. Aldakan musika taldeak boro bilduko du eguna.

Aldundia salatu dute, Nafarroa Zentroko erabiltzaile bat "diskriminatu" duelakoan

Zornotzako familia batek ipini du salaketa. Aldundiak ukatu egin du "diskriminazioa"

Ekaitz Herrera ZORNOTZA

Zornotzako familia batek auzibideak hasi ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren kontra, Aldundiak Nafarroa Zentroko erabiltzaile bat —familiako kidea bera—, "diskriminatu" eta "abandonatu" duelakoan. Erabiltzaileak, 67 urtekoa, down sindromea du (dependentzia maila handia du, III. gradukoa), eta 2002tik hona arreta espezializatua jaso du Nafarroa Zentroan, aniztasun funtzionala dutenentzako eguneko zerbitzuan: besteak beste, psikologia, pedagogia eta gizarte integrazio zerbitzuak jaso ditu. Alabaina, familiak jakinarazi duenez, Bizkaiko Foru Aldundiak zornotzarraren plaza "iraungi" zuen urtarrilean, eta arreta espezializatuko gunetik adineko pertsonen zentrorra igaroarazi du, "25 urtean hura zaintzeaz arduratu zirenen ohartarazpeni entzungor egin da", eta "erabakia adinean oinarrituta bakarrik" hartuta.

Ebazpena "okerra" eta "injustua" dela esan dute: "Mendekotasunaren arloko araudiak ez du adina ezartzen baliabideak esleitzeko irizpide erabakigarri legez. Oinarritzko printzipioa



Nafarroa Zentroa.

egokitasunarena da: pertsona bakoitzak bere beharrian espezifikotara ondoen egokitzen den zerbitzua jaso behar du", esan dute. Familiaren esanetan, Aldundiak Zerbitzu Sozialen eta Dependentziaren legea "urratu" du ustez, "lege horrek ez baitu plaza iraungitzeko arrazoi modura adinik ezartzen". Hori dela eta, Aldundiaren erabakia "bidegabea" dela esan dute, adinekoentzako zentro batek ez lukeelako adimen-desgaitasunean espezializatutako bat berdinduko. Fa-

miliaren iritziz, Aldundiak pertsonaren adina kontuan hartuta bakarrik hartu du erabakia. Horren harira, azaldu dute erabiltzaileak eskubide osoko plaza duela 2002tik, eta plaza hori egonkortu egin zela "2019ko Agindu Foralean, ebazpenak zornotzarraren beharri-zanetarako aukerarik onena zentroko Arreta Indibidualeko Programa zela jaso zuenean".

"Ingurune bitala"

"[Gure familiako kidearentzat] Nafarroako Eguneko Zentroa

ez da tresna asistentziala izan bakarrik, bere ingurune bitala baino: bertan eraiki du bere errutina, bere hartu-eman afektiboak, bere egonkortasun emozionala eta bere garapen pertsonala", azaldu du familiak. Momentu honetan erabiltzaileak etxean dago, familiak ez duelako begi onez ikusi senidea adinekoen zentroan egotea. Halaber, zerbitzu aldaketa horrek zornotzarrari "kalte emozional eta psikologiko larriak" ekarri diezazkiokeela uste dute, eta profesionalen ebaluazioek horixe diotela azpimarratu. "Egoera hau ez ulertzeko modukoa da. Babesteaz arduratu beharko litzatekeen administrazio hori bera dabil gure senideari mina eragiten", esan du familiak. "Ahalmenik barik, entzun barik, eta guztiz abandonatuta sentitzen gara", gaineratu du.

Aldundiaren erantzuna

Aldundiak bere arrazoiketa kaleratu du. Esan dutenez, Nafarroa Zentroko erabiltzailea "foru-profesionalen txosten teknikoek zein zentroko gerentziak" halaxe gomendatuta lekualdatu dute; hain zuzen ere, "egungo beharri-zanetara egokitutako arreta bermatzeko aukerarik egokiena dela" iritzita. Horregaitik, Aldundiaren esanetan, "lekualdaketa ez zaio adin kontu huts bati zor", baizik eta kontrara, "arreta egokituagoa, prebentziozkoa eta segurua ziurtatzeko" asmoari.

Halaber, Aldundiak gaineratu du mota horretako erabakiak "irizpide teknikoetan, profesionaletan eta baliabidearen egokitasunean oinarrituta" hartzen direla, eta Zornotzako erabiltzailearen kasua ere ildo horretan hartu dutela: "Bizkaiko Foru Aldundiak ulertzen eta errespetatzen ditu familiaren zantzak eta kezkek, baina bere azken erantzukizuna da behar duten pertsonak ahalik eta modurik onenean zaintzea, babestea eta laguntzea. Kasu honetan hartutako erabakia, hain zuzen ere, konpromiso horren barruan kokatzen da", azpimarratu du Aldundiak. "Ondorioz, erabaki horrek arretarik onenaren eta baliabidearen egokitasunaren irizpideari erantzuten dio, eta inola ere ez diskriminazio, ezeztasun edo utzikeria egoerei", gaineratu dute.

"Araudiak ez du adina ezartzen esleipenetarako irizpide modura"

ERABILTZAILAREN FAMILIA

"Erabakiak egokitasun irizpideari erantzuten dio"

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Zornotza kantuan ipintzeko ordua



IÑAKI GONZALEZ

E.H. ZORNOTZA

Zornotzan Kantuz egitasmoak prest dauka bosgarren edizioa. Datorren barikuan, maiatzaren 29an, udalerriko kantuzalerik amorratuena kalera irtengo dira abestera. Hitzordua Venecia tabernaren parean egin dute, 19:15ean, eta kalerik kale ibiliko dira gauak herria hartu arte. Antolatzaileek iragarri dutenez, bosgarren edizioa izango denez, aurten sorpresak egongo dira.

Garaiko umeek ortua txukundu dute



TRUMOITTE

M.Z. GARAI

Ortua txukunduta eta txorimalo berria ipinita, Garaiko umeak udazkeneko fruituen zain geratu dira. Domekan, jardunaldia egin zuten frontoian. Kalabaza eta krispetetarako arto haziak erein zituzten potetxoetan, eta ondoren ortura joan ziren eremua txukuntzera. Trumoitte beste lan saio bat antolatu du ekainaren Trako. Poteetan ereindakoak ortura eramango dituzte orduan.

Korralak swingari buruzko beste ikastaro bat emango du

J.D. IZURTZA

Izurtzako Korrala Sormen Guneak beste ikastaro trinko bat emango du domekan. Kasu honetan, swinga dantzatzeko aukera eskainiko dute, 11:00etatik 13:00etara. Dantza mota horretako espezialista bi izango dira irakasleak. Ikastaroaren prezioa 25 euro da eta izen ematea korrala@ganso.info helbidean egin daiteke.

Bestalde, Korralako kideek Mañariko Maiatza Kulturalean barruko Arri ekimena antolatu zuten joan zen astebururako; askotariko pieza artistikoak izan ziren herriko hainbat txokotan. Elkarteko kideek azaldu dute "oso pozik" daudela ekimenak izan zuten harreragaz.

'Berriro' jaio da: tokiko saltokietan deskontuak eta abantailak lortzeko tresna

Aplikazioa Durangaldean erabili ahal izango da lehenengo, eta EAE osoan gero

Ekaitz Herrera DURANGO

Erkidegoko dendariak tresna berri bat sortu dute tokiko komertzioetako salerosketak bultzatzeko: *Berriro*. Norabide biko tresna da, bezeroentzat zein dendariarentzat aproposa. Lehenengoak deskontuak eta abantailak lortu ahalko dituzte dendetan, eta bigarrenak bezeroak fidelizatzea lortuko dute trukean. Aplikazioa *berriro.eus* atarian deskargatu daiteke, eta nahikoa da datu pertsonal gutxi batzuk betetzea abantaila ez gozatzeko.

Bezeroaren ikuspegitik, funtzionamendua sinplea da: erosleak, komertzioaren batera joan eta gutxienezko erosketa bat egin beharko du. Eta behin hori egin da, denda bakoitzaren arabera onurak lortuko ditu. Batetik, diru-zorro bat, erosketak egin ahala metatzen joango dena, eta establezimendu horretako hurrengo erosketetan deskontu modura erabili ahal izango duena. Bestetik, puntu-zorro bat jasoko du, saltoki zehatz horretan ez ezik Berriro sareko beste edozein dendatan ere erabili ahal izango duena. Durangon zein Donostian, eta Elorrioren zein Gasteizen. Erosleak, hori



Aplikazioaren bultzatzaileek Kuruzesantun egin zuten aurkezpena, eguaztenean.

bai, dendak ezarritako gutxienezko erosketa egin beharko du.

Aplikazioa Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako merkataritza osora zabalik dagoen arren, Durangaldea izango da hura erabiltzen lehenengoa. Horregaitik, egitasmoaren bultzatzaileek aplikazioan izena ematera deitu dituzte bai dendariak bai erosleak. Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Saila, Bizkaidendak eta Euskaldendak daude egitasmoaren atzean.

Jakes Agirrezabal Merkataritza sailburuordeak esan due-

nez, aplikazioak "sektoreko erroka handi bati heltzeko" balioko du: fidelizazioari. Bizkaidendakeko Jose Andres Cebrecosek gaineratu duenez, "teknologiatik haragoko tresna" da, "komertzioek eurek diseinatu dutelako, euren beharri-zanak behatuta eta horiei erantzunda". Dendak Baiko Alex Palaciosek "erreminta erraza eta sinplea" dela esan du. Mireia Elkoroiribe alkateak eta Jessica Ruiz alkateordeak erreminta erabiltzera deitu dituzte herri-tarrak eta dendariak.



Irakurraldi girotuko antolatzaileak.

130 irakurle Hitzez eta Ahotsez irakurraldi girotuan, maiatzaren 29an

Jone Guenetxea DURANGO

Plateruena euskal literaturaren topagune izango da maiatzaren 29an, Hitzez eta Ahotsez irakurraldi girotuaren 10. edizioan. Antolatzaileek azaldu dutenez, 130 irakurlek eman dute izena, eta 40 bat partaide arituko dira ekitaldia girotzen. Ekitaldia 16:00etan hasiko da, Joseba Sarrionandiaren parte-hartzeagaz, eta 22:00etan emango diote amaiera.

Norbanakoen irakurraldiez gainera, parte hartzaile hauek arituko dira oholta gainean: Olatz eta Jokin txalapartariak, Otxandioko Mari Tere eta Txomin abeslariak, Kriskitin dantza taldeko dantzariak, Ina eskola-

ko dantzariak, Karrika antzerki taldeko kideak, Hotzikara dantza konpainia, Eneko Abasolo 'Abarkas' bertsolaria, Bereikua ahizpak trikitixa eta panderoagaz...

Emankizuna doan da, "irakurle zein artistek herriari debalde hartutakoa debalde emango baitiote herriari". Eta Platerueneko ateak zabal-zabalik egongo dira inguruko literaturzale eta kulturazaleak nahieran sartzeko.

Lurdes Iriondoren *Ez gera alferrik pasako* dokumental emanaldiagaz eman zioten hasiera aurtengoz Hitzez eta Ahotsez edizioari, Gerediaga elkar-teagaz antolatuta.

Musika proiektu bati eskainiko diote Durangoko Sormen Beka, aurten

Irabazlea nobedadeetariko bat izango da 2027ko Durangoko Azokan. Irailaren 21era arte bidali daitezke proposamenak

Aitziber Basauri DURANGO

Durangoko Azokaren bueltan sustatutako Sormen Bekaren 9. deialdia aurkeztu dute Gerediaga elkarteak eta Durangoko Udalak. Euskarazko ekoizpena eta sortzaile berrien lana indartzeko helburuagaz sortutako beka, musika proiektu bat laguntzera bideratuko da, aurten. Irailaren 21era arteko epea egongo da proposamenak bidaltzeko.

Gotzon Gomez Gerediaga elkarteko presidentek parte hartzera animatu ditu sortzaileak: "Ibilbide emankor eta polita egin

dugu urteotan, eta sortzaile berrien bidelagun izaten jarraitu nahi dugu; sorkuntzaren munduan hasten ari direnei eman gura diegu bultzada". Paule Sanchez Euskara eta Kultura zinegotziak azaldu duenez, "Durango euskal kulturaren bihotza da. Antolatutako kultur ekitaldiek, eta jakina, Durangoko Azokak, sortzaile berrien talentua eta ekoizpen berritzailea zabaltzen dituzte, eta Sormen Beka horren adibide garbia da.

Banaka zein taldeka parte hartu daiteke. Lana jatorrizkoa



Gerediaga elkarteko eta Durangoko Udaleko ordezkariak. GEREDIAGA ELKARTEA

izango da, eta berbak hartzen baditu euskara hutsezkoa izan beharko da. Sortzaileek *gerediaga@durangokoazoka.eus* helbide elektronikora bidali daitezke (oinarriak *www.durangokoazoka.eus* atarian daude eskura).

Irabazlea datorren Durangoko Azokan emango dute ezagutzera, eta hautaturiko sortzaile edo taldeak 15.000 euro jasoko ditu proiektua garatzeko. Emaitza 2027ko Durangoko Azokan aurkeztuko da jendaurrean.

EAJk Durangon hasiko du hauteskundeegi begirako atzerako kontaketa

E.H. DURANGO

Talde jeltzaleak ekitaldi erraldoia egingo du domekan, Landako Gunean, "Euskadi eraikitzen jarraitzeko tresnarik onena" dela, eta "lan horretarako indarra eta irmotasuna" dituela adierazteko. Ekitaldian Aitor Esteban alderdiko presidentea, Imanol Pradales lehendakaria eta Hego Euskal Herriko herrialdeetako buru batzarretako presidentek izango dira, besteak beste. Eguna, maiatzaren 24a, ez dute kasualitatez aukeratu, domekatik aurrera 365 egun geratuko dira-eta Hego Euskal Herrian udal eta foru hauteskundeak egiteko. Ekitaldia 11:30ean hasiko da.

Mobilizazioak ikastoletan

M.Z. DURANGALDEA

LABek deituta, ikastoletako langileek mobilizazioak egin zituzten atzo. Hezkuntza Sailari Akordio Laborala bere osotasunean bete dezan exijitu diote. Esaterako, 2024ko lan baldintzen homologaziorako azterketa bat egingo zela Akordio Laboralean, eta hori egin barik dagoela oraindino.



ZORNOTZAKO ANDRA MARI IKASTOLAN EGINDAKO MOBILIZAZIOA.

Durangoko Paradorea



CARLOS GARCIA
PP

Durangoko etorkizuneko Paradorea Bizkaiko Paradore handia izango da, hotel hori ez daukan euskal lurralde bakarra baita.

Proiektu hau oso positiboa da, etxebizitza publikoaren edo azpiegitura hidraulikoen besteko garrantzia duena. Iraganeko eztabaida zaharkituek kontra egiten dabenek herritarren aurrerapena manipulatu eta gelditu besterik ez dabe gura.

"Proiektu honek etxebizitza publikoaren edo azpiegitura hidraulikoen besteko garrantzia du"

Hotel honek kalidazeko turismoa erakarriko dau, enplegua sortuko dau, herriko merkataritza indartuko dau eta udalari kostuak kenduko dizkio utzita dagoen eraikin historiko bat zaharberitzean. Gainera, Paradoreen Sareari bere mendeurrena 2028an ospatzea ahalbidetuko dio, Espainiako probintzia guztietan egonda.

Senatuak PPren proposamen hau gehiago osoz onartu arren, egungo Gobernu zentralak aginduari ez ikusiarena egiten dio. Gobernu aldaketa bat itxaron beharko da Hondarribiaren edo Argomanizen moduko errealdade orugarria izateko.

DURANGALDEA ASTEON

Itxaro Juaristi abadiñarra da Egunean Behin jokoko lehenengo sariduna

ABADIÑO 'Anboto-Durangaldea' taldeak badu lehenengo irabazlea. Itxaro Juaristi abadiñarra izan da lehenengo onuraduna, eta Egunean Behin jokoa lehiazteko deia egin du, baita Tokikom Ligagaz batzekoa ere. Oraindino taldera batzeko aukera dago.



Iurreta LHII ikastetxeak sari bi irabazi ditu asteburuan Euskelec lehiaketan

IURRETA Iurreta LHII ikastetxeak sari bi lortu ditu Gasteizen jokatu den IX. Euskelec txapelketan. Iurrelek taldeak proiektu metodologikorik onenaren saria lortu du. Era berean, berdintasunaren eta emakumeen partaidetzaren aldeko konpromisioaren saria ere irabazi dute.



Iurretako LHII ikastetxeko kideak.

GUTUNAK

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - Iurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefonoa /
/ Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

anboto

ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenerko

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902



Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta.

Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi, Aritz Maldonado
Zabala.

Marketina

Deñe Izaga Yeregui.

Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01

ISSN: 1578-7028

Tirada: 12.000 ale



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko
Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Hezkuntza, Hizkuntza Politika
eta Kultura Sailak diruz lagundua



KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHENAGO.

946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 22

- **DURANGO Nerea Arrieta Trio** Kontzertua. Otamotzena auzogunean, 19:00etan.
- **DURANGO 'Espazioaren hustura'** Jorge Oteizaren obra. Arte eta Historia Musean.
- **MAÑARIA 'Ahuntzen gaixotasunak. Prebentzio eta kontrol-estrategiak'** Berbaldia. Hizlaria: Yamili Irais Rueda Garcés. Liburutegi zaharrean, 19:00etan.
- **MAÑARIA Gar** Kontzertua. Errekondo aurrean, 20:00etan.
- **ZALDIBAR 'Kirola: bizitzarako ikasgai'** mahai-ingurua: Nora Narbaiza eta Mikel Arroitaonandia korrikalariak, Ane Miren Alberdi arku-tiratzailea eta Ibai Zabala pilotari ohia. Garikoitz Sariugarte bertsolariak eta Iker Ajuriagerra coach-ak gidatuta. Liburutegi zaharrean, 18:30etan.
- **ZORNOTZA Amoreszena** 'Andante' (Markeliñe), Zezilia Gallartzagotian, 18:00etan. 'Alonso, ezinezko mandatuaren mezularia eta galdutako gutuna' (Hortzmuga), Herriko plazan, 19:00etan. Zugan Ni, Zornotza Aretoan, 20:00etan.

ZAPATUA 23

- **DURANGO Bertsioen Lehiaketa Gauda** Baturiko

dirua Río de Oro elkartearen proiektuei laguntzeko izango da. Plateruenean, 20:00etan.

- **DURANGO Show cooking** Txaramela Pasta proiektua. Merkatu Berrian, 10:00etatik 12:00etara.
- **IURRETA Uxue Aróniz & Iñaki Miguel** Kontzertua, Auzorik auzo egitarauaren eskutik. Gero, auzokoekin luntxa. Goiurian, 18:00etan.
- **IURRETA Bizikleta irteera Trapagara** Iurreta Txirrindulari Elkartearen eguna ospatuko dute. Iurretan, 07:30etan.
- **MAÑARIA Andra Mari dantza taldearen 40. urteurrena** Kalejira, eguerdian. Dantza ikuskizuna, frontoian. Herri bazkaria. Lorratz taldea, plazan, 18:00etan.
- **MALLABIA 7 pago** Mendi lasterketaren irteera, plazatik, 09:30ean (sariak, 13:30ean). Haur parkea, plazan, 10:30etik 13:30era. Elektrotxufla elektrotxaranga, 13:30etik 15:30era. Oilasko pintxoak eta sagardoa, 14:00etan. Umeen lasterketa, 16:00etan. Garagardo dastatzea (probalekuan), 17:30etik 20:00etara.
- **MALLABIA 'Zerbait sartu zait begian'** Imanol Epelde. Kontzejuzarrean, 19:00etan.
- **OTXANDIO Kultur Aniztasun Jaia** 'Arrazakeriak hartzen

dituen formak eta nola aurre egin' (11 Lore elkarte eta Mugimedu Sozialista), Pasealekuan, 12:00etan. Munduko jolasak, plazan. Ezkontza saharar baten antzezpina, plazan, 13:00etan. Hainbat jatorritako otxandiarren pintxoan dastatzea, 13:30ean. Aldakan taldea, 19:00etan.

- **ZORNOTZA Kolonbiarekin Elkartasuna jaia** Freyter elkartearen aurkezpena, 16:00etan. Gero, Sol Ekintik. Lolo Calleja, 19:30ean. Txanba Payes, 20:30ean. DJ set, 21:00etan. Ogenbarrena auzoan.
- **ZORNOTZA Amoreszena** 'Titeretú' (Itineránia), Zelaieta zentroan (11:30-14:30 / 16:30-19:30). 'La Petite Caravane' Adrián Conde, Herriko plazan (12:30-14:30 / 16:30-19:30). 'Errotik ipuin musikatuak' Zelaietako kontzertu gelan (12:00 / 17:00). 'Babes' (Txalapart), Zubiaur Musika Eskolako Auditorioan (17:00 / 18:30). Kalejira (Zirkozaurre), Ogenbarrena, Gudari eta Luis Urrengoetxea kaleetan, 19:30ean. 'Bonba bat naiz!' (Bea Larrañaga), Andra Mari plazan, 20:00etan.

DOMEKA 24

- **ABADIÑO Saltsa** Tailerra eta dantzaldia. Amaraun Arte Fabrikan, 13:00etan.
- **ABADIÑO 'Erlea&Eztia'** Berbaldia eta dastatzea. Urkiola hotelean, 12:00etan.

- **12:30 Bertso poteoa: Txaber Altube, Sustrai Colina eta Oihana Bartra.**
- **14:30 Paella erraldoia** Ferialekuan. Antolatzaileak: herriko taldeak.
- **16:30-19:30 Puzgarriak** Ferialekuan. Eurria bada, frontoian.
- **18:00 Kalejira Dj Bullegaz.**
- **21:30 Kontzertua Txanporta plazan:**
 - Merina Gris
 - Zopilotes Txirriaos
 - Lukiek

MAIATZAK 23

- **11:00 Artisautza azoka** Ferialekuan. Eurria bada, San Trokaz plazan.
- **11:00-14:00 Puzgarriak** Ferialekuan. Eurria bada, frontoian.

ArteDrama). Gonbitak eskuragarri Udal Mediatekan eta Errota Kultur Etxean maiatzaren 11tik aurrera (gehienez 4 sarrera pertsonako).

San Trokaz ABADIÑO / ZELAIETA

MAIATZAK 22

- **17:00 Zirku tailerra** Txanporta plazan.
- **18:00 Zumba** Txanporta plazan.
- **18:30 Añeketan taldeak antolatutako martxa herrikoia.** Urteera Txanporta plazan.
- **21:30 Antzerkia probalekuan: Nor naizen baneki (Axut!-**



LA RED TEATRO

IURRETA Antzerkia La Red Teatrok umorez, dramaz, itxaropenez eta etsipenez beteriko *El encargo* lana taularatuko du. Obra honek mundu kontrajarriak eta manipulazioa ditu berbagai. Ibarretxe kultur etxean, maiatzaren 22an, 19:00etan.

- **MAÑARIA Azoka XXX.** Euskal Azoka eta IX. Euskadiko Azpigorri Txapelketa, 10:00etan.
- **ZORNOTZA Amoreszena** 'Univers' (Engruna Teatro), Zornotza Aretoan (11:30/13:00). 'Loratzen' (Zirkun Zirkua), Herriko plazan, 12:30ean. 'Prozesuak eta ibilbidea' berbaldia (Anita Maravillas), Zelaietan, 13:00etan.

ASTELEHENA 25

- **DURANGO 'Opor kutxa'** Berbaldia. Udal euskaltegian, 17:30ean.

MARTITZENA 26

- **DURANGO 'Hezkuntza, digitalizazioa eta**

etorkizuneko erronkak'

Mahai-ingurua: Zigor Ibarzabal (Ikastolen elkarte), Aitor Uriondo (Eusko Jauralritza), Alfonso Blazquez (Kristau eskola) eta Edurne Emasabel (Altxa Burua).

- **ZORNOTZA 'Osasuna, nutrizioa eta emakumea'** Hizlaria: Jana Ampurua nutrizionista (gatzelania). Zelaietan, 18:30ean.

EGUAZTENA 27

- **ZORNOTZA 'Emakumea, osasuna eta kirola'** mahai-ingurua: Saioa Calles, Ostaizka Egia, Sandra Garaikoetxea, Iraia Garcia eta Merche Marina. Moderatzailea: Nahia Sillero. Ondoren, luntxa. Zelaietako auditoriumean, 18:30ean.

EGUENA 28

- **DURANGO Artisau garagardo dastatzea** Garai Agro Brewery-k gidatuta. Merkatu Berrian, 18:00etan.
- **DURANGO 'Ezagutzen duzu Caritas Tabira?'** Berbaldia. Otamotzena auzogunean, 19:00etan.
- **ZORNOTZA 'Elikadura trantsizio hormonalan: ongizaterako elikatzea menopausian'**, Amalía Holguinek gidatutako tailerra. Izena eman behar da. Antzinako Musika Eskolan, 17:30ean.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEA

Todo lo que fuimos domeka 24: 19:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

The Mandalorian and Grogu

Barikua 22: 17:45, 20:30.

Zapatua 23: 16:45, 18:30, 21:30.

Domeka 24: 16:45, 19:30.

Astelehena 25: 17:30, 20:15.

Martitzena 26: 17:30, 20:15.

Eguaztena 27: 19:00.

Love me tender

Barikua 22: 17:45, 20:30.

Zapatua 23: 18:30, 21:30.

Domeka 24: 16:45, 19:30.

Astelehena 25: 17:30, 20:15.

Martitzena 26: 17:30, 20:15.

Eguaztena 27: 19:00.

Tres mujeres

Barikua 22: 17:45.

Zapatua 23: 19:15.

Domeka 24: 20:00.

Astelehena 25: 18:00.

Martitzena 26: 18:00.

Eguaztena 27: 19:00.

Gigante


Barikua 22: 20:30.

Zapatua 23: 21:30.

Domeka 24: 18:00.

Astelehena 25: 20:15.

Martitzena 26: 20:15.



ELORRIO

ARRIOLA

Un poeta

Zapatua 23: 20:00.

Domeka 24: 20:00.

Astelehena 25: 20:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Los justos

Domeka 24: 20:00.

Astelehena 25: 20:15.

Pillion

Martitzena 26: 20:15.

DEKORAZIOA ETA ERAIKUNTZA

GEHIGARRIA 2026


 anboto



Senttix

Deskantsu naturala

Franzisko Ibarra 8, behea · Tel.: 944 07 64 22
durango@senttix.com · www.senttix.com



Aurkibidea



logela 12



bainugela 14




sukaldea 16




egongela 19



oihalak 20



hormak 22



ETXEKO *logela.*

Atsedean hartzeko espazio lasaiak lehenensten dira gehigarri larregigaz beterikoak izan beharrean

Logela etxeko espaziorik intimoena da, baina baita dekorazio aldetik gehiegikeriak azkarren igartzen diren gela ere. Askotan, atsedean hartzeko sortua den tokia zara-ta bisualez betetzen dugu ia konturatu barik. Horrek neke eta desorden sentazioa eragiten duen espazioa sortzen du.

Dekorazioaren joera berriek, oster, kontrako norabidea hartu dute. Gero eta gehiago bilatzen dira lasaitasun sentazioa ematen duten logelak, estetikaren gai-netik ongizatea lehenesten dutenak. Gutxiago gehiago dela dioen esaldi hori guztiz uztartzen da logelen dekorazioagaz.

Logeletan argitasunari ere ez zaio behar den garrantzia ematen. Argiztapen beroak, zeharkakoak eta intentsitatea erregulatzeko aukeragaz, atsedean giroa sortzen la-guntzen du.

Beraz, logela ez da perfektua izan behar. Ongizatea zaindu eta lasaitasuna ematen duen espazioa sortzea lortzen badugu, gure helburua beteta egongo da.

leike

Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia



Durango

San Roke Barria II

Sustapen berria salmentan



Eraikin berria bizi-kalitate berarekin Durangon.

2 eta 3 logelako 47 etxebizitza berri, San Roke Barria II.

Sukaldea guztiz hornitua eta armairuak gela bakoitzean.



SUKALDE EKIPATUA



ARMAIRUAK



GARAJEA



TRASTELEKUA



GIMNASIOA



RELAX GUNEA

ETXEKO *bainugela.*



Bainugela berriztea buruhauste handia izaten da gehienetan. Baldosak aldatzea, esate baterako, asteko lana izaten da, hautsa eta zarata sortzen duena. Ekonomikoki ere obra garestia izaten da. Horregaitik, azken urteetan jendeak irtenbide azkar, praktikoa eta ekonomikoak bilatzen ditu. Beraz, kontua ez da obra handi bat egitea dena aldatzeko, begirada gehien erakartzen duten elementuetan eragitea baino. Iturgintza-

ko piezak berriztea, konketa modernoago baten alde egitea edo osagarriak zaintzea nahikoa izan daiteke bainugelaren itxura guztiz eraldatzeko. Beste aldaketa erraz bat txorrot berriak ipintzea da. Termostatodunak badira, dirua aurreztuko dugu, gainera.

Boladan dago baldosa zaharren gainean estaldurak edo biniloak ipintzea, baita margotzea ere. Hartara, lehendik dagoen bainugelak beste itxura bat hartuko du.

Bestalde, sarritan komun txikiei etekina ateratzea izaten da helburua. Kasu askotan, gainera, argi naturalik bako espazioak izaten dira. Kasu horietarako badaude sekretu batzuk. Profilik bako manpara bategaz edo oso profil fina duenagaz argia errazago zabalitzen da. Eta leku txikietan zuria edo kolore argi bat izaten da aliaturik onena. Detaileren batean kolorea sartuz gero, konbinazio irabazlea izango dugu.

AHOLKULARITZA PERTSONALIZATUA

SUOMI
LAGOI
MOTA GUZTIAKOKO ZERAMIKAK
Astolabeitia kalea, 9
ABADIÑO
Tel.: 94 621 52 84
www.suomi2016.es

ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK

ATERPE КРОТЗЪ
EGUR ERAIKUNTZAK · TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65 www.carpinteriaaterpe.com Ander Maiztegi 655 73 75 51

BAÑOS ITURGINTZA - BEROGAILUA - GASA IURRETA
Erakusketa eta komuneko osagarrien salmenta

Maspe Kalea, 4 - 48215 Iurreta - Tel./ Faxa: 946 202 433
Nico: 644 705 174 - E-maila: b.iurreta@yahoo.es

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com
Arzubia 10 B industrialdea, 13-14 pabillioak ABADIÑO
944 071 791 - 692 859 779



ETXEDREAMS, historia duen izena

-  Zure produktuak kosturik gabe entregatu eta jartzen ditugu.
-  Aukeratu gehien gustatzen zaizun ordainketa-metodoa
-  Zure ohe zaharra kendu eta birziklatzen dugu
-  Doako finantzaketa TAE % 0 komisorik gabe
-  Etxeko aholkularitza eta "hitzordua" jartzeko aukera.

Koltxonetak - Kanapeak - Oinarriak - Oheburuak - Burkoak - Osagarriak

1985. urtetik AMETSAK SORTZEN

"Atsedena profesionalen esku utzi behar delako"



OHE ARTIKULATUETAN ESPEZIALISTAK

"Atsedena ona izatea da garrantzitsuena"

ETXEKO *sukaldea.*



Egurra eta kolore argia, hutsik egiten ez duen konbinazioa sukaldeak dekoratzeko

Badago sukaldeetan hutsik egiten ez duen formula bat, eta urteetan mantentzen ari dena. Kolore argia, egurra eta landare-zuntzak uztartzen dituen da. Giro atsegina sortzen du, arina da. Argia ematen du, eta, gainera, espazio txikietara ere erraz moldatzen da. Klasikoetan klasiko, detaileren bat ere gehitu daiteke ikutu modernoa emateko.



Modernitatea sukaldera ere heldu da. Diseinu sofisticatua ausartzen direnentzat

Sukaldeetako joerek espazio zabalak markatzen dituzte, egongelagaz eta jangelagaz konektatuak; gune sozial legez jarduten duten uhartek mahaiaren funtzioa egiten dute. Gainera, biltegitratze sistema sofisticatuagoek minimalismoaren atea zabaltzen digute.

Mikel Piriz
ALBAÑILERIA

627.251.069
mikelpiriz@gmail.com

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberitzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A, BERRIZ
Tel./Fax: 946 824 143 · Mug: 658 758 42
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Sukalde txiki bat praktikoa izan daiteke baldin eta haren aukera guztiak aprobetxatzen badakizu. Ez da soilik altzari politak aukeratzea. Zentimetro bakoitza aprobetxatzea eta optimizatzea da gakoa. Ezkutuko biltegiak integratzeak aldea markatzen du.



Kolore leunak dira sukaldeen ikur nagusia. Inoiz nekatuko ez zaren koloreak dira, joeren lehen lerroan egongo direlako beti. Argitasunagaitik, sortzen duen zabaltasun sentazioagaitik, transmititzen duen garbitasunagaitik... Aukera paregabea duzu, diseinuan larregi arriskatu gura ez baduzu.



JAIONE ZURIKARAI
IZEI

"Gaur egun sukaldea etxeko bihotza da"

Zeintzuk dira bezeroak gehien eskatzen dituen estiloak?

Bezeroak sukalde zabala gura izaten du. Badira urte batzuk sukalde etxera zabaltzeko joera dugula. Itxiturak izan ditzake, baina egongelagaz konektatuta edo guztiz zabalik, mostradore edo irlagaz.

Sukaldearen kontzeptu aldaketa bat gertatu da?

Gaur egun sukalde etxeko bihotza da. Lehen, egongela zen etxean jendea batzen zen lekua, baina orain sukalde da erdigunea. Gainera, orain oso modan daude gosaria prestatzeko txokoak. Orain dela gutxira arte, sukalde janaria prestatzeko eta jateko lekua zen, baina gero egongelara joaten ziren. Beraz, sukalde egoteko leku bihurtu da.

Zein kolore daude boladan?

Urte askoan zuria zen nagusi, baina orain ia ez da zuria erabiltzen. Kolore naturalak eramaten dira asko. Baita indartsuagoak ere, berdeak tonu desberdinetan, urdinak... hauek guztiak egurragaz konbinatzen dira.

Zer ezin da falta sukalde perfektu batean?

Espazioa badago, multifuntzionala izan behar da. Ezin da izan janaria prestatzeko leku bat bakarrik. Denok batzeko, gozotasuna garrantzitsua da.

Sukaldea aukeraterakoan, jendeak zein akats egiten du?

Funtzionaltasuna bakarrik kontuan hartzea eta material zein argiztapen ez egokiak aukeratzea.

Sukaldea aldatzea pentsatzen banabil, zer izan beharko nuke kontuan?

Bisio on bat eta funtzionalitatea. Era berean, lehen sukalde denak berdinak ziren, eta orain pertsonalizazioa gakoa da. Bizitzeko era desberdinak dauden legez, sukaldeak ere bakoitzaren gustuetara eta neurrirra pentsatu behar dira, etxeko beste espazioekin orain arte egin izan dugun legez.



ZATOZ GURE
ESTUDIO BERRIA
IKUSTERA!

BARRENKALE 20
DURANGO

izeidecoracion.com

 [izeiebanisteria](https://www.instagram.com/izeiebanisteria)

 615 78 16 85



ETXEKO egongela.



Argiztapen leunak ikutu atsegina ematen dio egongelari. Argi zuri hotzak alde batera geratu dira. Mahai-lanparak, zeharkako argiak eta tonu epelak erabiltzen dira giro intimista sortzeko.



Kontuan izan behar da pertsona askorentzat egongela dela etxeke benetako gune soziala. Bertan elkartzen gara familian, lagun artean, telebista ikusteko, jolasteko... Horregaitik, nortasun handikoak izateak aldea markatzen du, tamaina handiko sofetatik hasi eta bilduma pertsonaletaraino.

Beraz, argi epelak, ehun gozoek eta detaile pertsonalek giro berezi hori sortzen dute, eta osagarriekin kolorea gehitzeko aukera ematen dute. Azkenean, egongela ederra ez da aldizkari batekoa dirudiena, barrura sartzean bakea eta erosotasuna transmititzen dituen baina.



ESKAINTZA IZARRA

Sofa eraisgarria +
135 x 190 zm-ko koltxoi
biskoelastikoa.



395 €
(33 € hilabetean)

**12 hilabete
interesik
gabe**

Eramatea, muntatzea eta altzari zaharrak kentzea DOAN

**Colchonerías
Bengoa**

www.colchoneriasbengoa.com
info@colchoneriasbengoa.com

Frai Juan Zumarraga, 19 (Durango) - 944 650 859
San Pedro, 35 ezk. Ixerango (Zornotza) - 946 855 662



Argi puntuen banaketa egokia ezinbestekoa da egongelaren argiztapena orekatua izan dadin. Egongelan lortu behar dena da argiztapen tekniko edo orokorraren eta argiztapen apaingarriago eta zeharkakoago baten arteko uztartzea modu egokian egitea. Zailtasunak izanez gero, adituen esku uztea da onena.

ALKI

DEKORAZIOA ETA ERREFORMA INTEGRALA

Mikeldi, 6 DURANGO

94 681 38 95 • 679 097 744 • alki@interioresalki.com

www.interioresalki.com






mi casa

cosas de casa

DURANGO
Artekalea 30 behea
656 735 170 / 946 004 664



APAINKETAK
ROYUELA

Jokatu zure espazioekin modu xume eta personalizatuan

Kalebarria, 40 Durango
Tel.: 946 810 582 • info@royuela.biz





ETXEKO oihalak.



Oihalak dira etxeke edozein espaziori puntu gehigarria ematen dioten osagarriak. Logeletan, kolore zuriaren kontrapuntu legez, kuxinak, izarak eta edredoiak kolorez betetzea dugu aukera. Eta gauza bera gertatzen da egongelan. Gainera, dekorazioan aldaketa integral bat egin barik, oihalak aldatzea erraza izaten da.



Kuxinen munduak badu bere zailtasuna, dekorazioan ideiak argi izan ezik. Koloretsuak zein testura ezberdinetakoak konbinatuz, arriskuak hartu eta asmatuko duzu.

jazz solutions

lizentziak, proiektuak
eta obraren zuzendaritza

barne diseinua
kudeaketa bisuala
lan guneak

Durango Plaza, 12 bajo - Durango

946 215 964

jazzsolutions.es

bed's Bed's Durango

Alluitz, 1 · T. 944 005 980

Zure atsedenean pentsatzeko sasola da Bisita gaitzazu!

Koltxoak · Ohe Oinarriak · Burkoak · Oheko Arropa

Atsedenearen marka onenak **pkolle** **DULTEX** **Intelloflex** **pardo** **TEMPUR**

ARGOLABE

Joxemiel Barandiaran 8A, 1C 48200 Durango

94 681 44 95 - 618 068 747 650 397 007

promotora@argolabe.eus

www.promotoraargolabe.com

BIHURTU ZURE ETXEA ESPAZIO BAKAR BAT

ZURE ETXEBIZITZA EDO NEGOZIORAKO KONTZEPTU BERRI BAT

▶ ERABERRITZE INTEGRALAK

▶ OBRA BERRIKO ETXEBIZITZA

▶ NEGOZIOAK & BULEGOAK

▶ GELA INDEPENDENTEAK

▶ ATARIAK


▶ STANDAK, AZOKAK ETA EKITALDIAK



ETXEKO *hormak.*

Hormak protagonista: pertsonalitate handiko irudiak zure beharretara egokitzen dira

Paper mota desberdinek pertsonalitate handia hartu dezakete zure hormetan. Irudi geometrikoekin, marrazkiekin, paisaiekin zein neurrira egindako muralekin, dekorazioan harago joateko aukera dago. Gaur egun, kalitate handiko paperak garbitu egin daitezke, eta sukaldean zein bainugelan ipini daitezke.



Pintura guztiak ez dira berdinak. **Uno Zero.**

MONTÓ
DURANGO MARGOAK

DURANGO MARGOAK
Askatasun Etorbidea, 9
DURANGO
Tel.: 946 40 88 20
www.durangomargoak.com

Bakteriorik gabe • Lizunik gabe
Usainik gabe • Emisiorik gabe

www.tabiracolor.com

Urbitate Ind., 2, Abadiño
Frente a Eroski

94 621 79 11

TABIRA COLOR

procolor Pinturak

PINTURA DENDA
Astelehenetik ostiralera
De 8.00 a 13.15
De 15.00 a 19.00
Zapatuetan
De 9.00 a 13.00

GA

Gaztelu-Iturri
ARKITEKTURA

OBRA BERRIA · ERREHABILITAZIOA
BERRIZTATZEA · BARNE DISEINUA

Tel.: 946 509 194 | gazteluiturri.com | Askatasun-etorbidea, 17

HOME SCHMIDT HOME



Schmidt-en eskutik
etxe osoa

BARRIZTU
BARNE DISEINUA

C.C. Eroski 48220 Abadiño · Tel. 946 526 195
Hartu hitz ordua www.home-design.schmidt





famaliving
Durango



Francisco Ibarra Kalea 8, beheia
Tel.: 944 076 422
durango@famaliving.com

www.famaliving.com